

# Lurraldea eta Hizkuntza.V. Jardunaldiak Arnasguneen garapen jasangarrirantz.

•

**Lurgune euskaldunentzat  
garapen ekonomikorako  
estrategiak nola eraiki.**



Joseba Garmendia  
Donostia, 2021-01-23

# **TOKIKO GARAPEN EKONOMIKORAKO ESTRATEGIAK ERAIKITZEKO MARKO KONTZEPTUALA, ARKITEKTURA ETA METODOLOGIA**

**(Iñaki Arregi bekaren laguntzarekin egina)**

- 1. UDALERRI EUSKALDUNEN ERRONKEI ERANTZUTEKO LEHEN HURBILPENA.**
- 2. MARKO KONTZEPTUALA EDO NONDIK EDAN.**
- 3. TOKIKO ESKALAREN BEREZITASUNAK. TOKIKO GARAPEN AGENTZIAK HEGO EUSKAL HERRIAN**
- 4. TOKIKO GARAPEN ESTRATEGIEN SAILKAPENA. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.**
  - 4.1. TOKIKO GARAPEN POLITIKEN BILAKAERA. TOP-DOWN, BOTTOM-UP, SPATIALLY BLIND ETA PLACE-BASED IKUSPEGIAK.**
  - 4.2. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.**
- 5. “TOKIKO GARAPEN ENDOGENORAKO SISTEMA IREKIA” PROPOSAMEN KONTZEPTUALA.**
- 6. ONDORIO GISA: NONDIK HASI? SORRERARAKO METODOLOGIA ETA OHIKO AKATSAK.**
  - 6.1. TOKIKO GARAPEN SISTEMA IREKIAREN GENESIRAKO METODOLOGIA.**
  - 6.2. TOKIKO GARAPEN ESPERIENTZIEN GENESIAN EMAN OHI DIREN IKUSPEGI OKERRAK.**

## 1. UDALERRI EUSKALDUNEN ERRONKEI ERANTZUTEN LEHEN HURBILPENA.

- 1.1. BEREZIAK AL DIRA UDALERRI EUSKALDUNAK ETA ARNASGUNEAK SOZIOEKONOMIKOKI?
- 1.2. NOLA EUTSI ERRONKEI MODU KOHERENTE ETA OREKATUAN?
- 1.3. BADAGO NONDIK IKASI. GERTUKO ESPERIENTZIA ARRAKASTATSUAK.

- **Garapen ekonomikorako estrategiak diseinatzeari dagokionez,** hau da, errentaren sorrera eta banaketa ahalbideratzen duten jarduera ekonomikoaren sustapenari dagokionez, **ez dago ezberdintasun definitoriorik udalerrri euskaldunen eta** problematika antzekoa (despopulazioa, biztanleriaren zahartzea, herri txikien ahultasunak, azpiegituren falta, bizitzeko erakargarritasun eza...) izan dezakeen **beste edozein herriren artean.**
- **Erronka sozioekonomikoak, eta beste bi erronka demolinguistikoak eta soziokulturalak, elkar baldintzatzen dute** eta elkarrekin lotuak daude, bai modu negatiboan, bai modu positiboan.
- Hiru erronken arteko orekarekin koherentea izango den garapen ekonomikorako proposamena **garapen endogenoaren paradigman** oinarritzea proposatzen da.

## 2. MARKO KONTZEPTUALA EDO NONDIK EDAN.

2.1. BA AL DUTE ESKALA TXIKIKO LURRALDEEK AUKERARIK ESPERIENTZIA PROPIOAK ERAIKITZEKO GLOBALIZAZIOAREN AURREAN?

2.2. KANPOKOTASUNAK EDO ENPRESEN ARTEKO SARE LOKALIZATUEN ABANTAILA LEHIAKORRAK.

2.3. TOKIKO ESKALATIK BERRIKUNTZA GAITASUNEAN ERAGITEKO GAKOAK.

- **Garapen endogenoaren teoria, berrikuntza sistemikoaren ekarpena, berrikuntza soziala, pentsamendu instituzionalistak, abantaila lehiakorren teoriak,** eta beste batzuk (lokalizazio eta aglomerazio-kanpokotasunen teoriak, Krugman-en Geografia Ekonomiko Berria, Distritu Industrialen teoria, lan eta produkzio-antolaketa eredu postayloristak...) elementu, ideia, kontzeptu eta prozesu baliagarriak eskaintzen dituzte herrigintzatik zein udalgintzatik eraldaketa eta ahalduntze komunitariorako praxia osatzeko, legitimatzeko eta prestigioa emateko.
- Dinamika ekonomikoaren ulerpena eta mikro-oinarriak (kanpokotasunak, berrikuntza prozesuaren izaera sistemikoa...)

## 2. MARKO KONTZEPTUALA EDO NONDIK EDAN.

2.1. BA AL DUTE ESKALA TXIKIKO LURRALDEEK AUKERARIK ESPERIENTZIA PROPIOAK ERAIKITZEKO GLOBALIZAZIOAREN AURREAN?

2.2. KANPOKOTASUNAK EDO ENPRESEN ARTEKO SARE LOKALIZATUEN ABANTAILA LEHIAKORRAK.

2.3. TOKIKO ESKALATIK BERRIKUNTZA GAITASUNEAN ERAGITEKO GAKOAK.

- Bi kanpokotasun multzo aztertuko ditugu:

- 1) Aglomerazio ekonomiak

- 1) Lokalizazio ekonomiak, industriek behar dituzten hainbat input-en presentziagatik erakarpen efektuak biltzen ditu.
  - 1) bitarteko faktoreen erabilgarritasuna
  - 2) lan-merkatu espezializatuaren existentzia
- 2) Urbanizazio ekonomiak, produktibitate hazkundeak sorrarazten ditu tokiko eskari indartsuaren ondorioz.

- 2) Ezagutza ekonomiak edo “*knowledge spillovers*”. informazio eta teknologia-fluxuen bitartez eratortzen dira

- 1) Mashall-Arrow-Romer (MAR) erako kanpokotasunak,
- 2) Porter erako kanpokotasunak
- 3) Jacobs erako kanpokotasunak

## 2. MARKO KONTZEPTUALA EDO NONDIK EDAN.

2.1. BA AL DUTE ESKALA TXIKIKO LURRALDEEK AUKERARIK ESPERIENTZIA PROPIOAK ERAIKITZEKO GLOBALIZAZIOAREN AURREAN?

2.2. KANPOKOTASUNAK EDO ENPRESEN ARTEKO SARE LOKALIZATUEN ABANTAILA LEHIAKORRAK.

2.3. TOKIKO ESKALATIK BERRIKUNTZA GAITASUNEAN ERAGITEKO GAKOAK.

- Pentsamendu eboluzionista eta instituzionalistaren arabera berrikuntza politiken diseinuan kontuan hartu beharreko sei ezaugarri:
  - i) ezagutza teknologikoak **izaera lokalizatu eta espezifikoa** du, neoklasikoek esaten dutenaren aurka ez baita ezagutza generikoa, kodifikagarria, kosturik gabe eskuragarria, askea eta ingurunearengandik independientea;
  - ii) ezagutza teknologikoek **osagai tazitu** esanguratsua dute,;
  - iii) aldaketa teknologikoa prozesu **metagarria eta ibilbidearekiko menpekoa** (path dependent) da;
  - iv) **errendimendu hazkorrak** ditu;
  - v) **kanpokotasunak** eta spillovers fenomenoak erakusten ditu;
  - vi) berrikuntza prozesuak **izaera sistemikoa** du, erlazioak askotarikoak baitira adar zientifiko ezberdin, teknologia ezberdin, erakunde eta eragileen artean, aurrerago sakonduko dugun bezala.

### 3. TOKIKO ESKALAREN BEREZITASUNAK. TOKIKO GARAPEN AGENTZIAK HEGO EUSKAL HERRIAN

#### 3.1. TOKIKO LURRALDEEN BEREZITASUNAK GAINERAKO ESKALEKIKO.

#### 3.2. HERRI ETA ESKUALDEETAKO GARAPEN ESPERIENTZIA ARTIKULATUAK HEGO EUSKAL HERRIAN.

- Sarritan tokiko eta erregio garapenari buruzko literaturak tokiko eta erregio eskalak era indiferentean kontenplatu ditu.
- Gure ustez, elementu komun batzuk partekatzen badituzte ere, komenigarria da bi eskala hauen arteko bereizketa egitea.
- Tokiko eskalak (udalerria edo udalerriz osatutako eskualdea) autonomi erkidegoarekin dituen berezitasun nagusiak zerrendatuko ditugu, gabezietan eta potentzialtasunetan sailkatuz.

### 3. TOKIKO ESKALAREN BEREZITASUNAK. TOKIKO GARAPEN AGENTZIAK HEGO EUSKAL HERRIAN

#### 3.1. TOKIKO LURRALDEEN BEREZITASUNAK GAINERAKO ESKALEKIKO.

#### 3.2. HERRI ETA ESKUALDEETAKO GARAPEN ESPERIENTZIA ARTIKULATUAK HEGO EUSKAL HERRIAN.

- Tokiko eskalaren gabeziak:
  - Masa kritiko falta eta elementu klabeen gabezia hainbat politika sistemiko bultzatzerako orduan.
  - Legez ez zuten aitortua sustapen ekonomikoa bultzatzeko eskuduntza.
  - Udaletxeek ez dituzte baliabide finantzario egonkorrik izan sustapen ekonomikorako



### 3. TOKIKO ESKALAREN BEREZITASUNAK. TOKIKO GARAPEN AGENTZIAK HEGO EUSKAL HERRIAN

#### 3.1. TOKIKO LURRALDEEN BEREZITASUNAK GAINERAKO ESKALEKIKO.

#### 3.2. HERRI ETA ESKUALDEETAKO GARAPEN ESPERIENTZIA ARTIKULATUAK HEGO EUSKAL HERRIAN.

- Tokiko eskalaren potentzialtasunak:
  - Analisi, identifikazio eta prospektiba gaitasunak.
  - Tokiko indar eta baliabide endogenoak aktibatze eta erabiltze gaitasuna.
  - Identitate sendoak, konfiantza, kolaborazioa, kapital soziala, sareak, *learning* eta berrikuntza prozesuak, ekintzailtza dinamikak eraikitze gaitasunak.
  - Pertsona eta eragileen jokaeran eragiteko palanka extra-ekonomikoak, ohiko pizgarri ekonomikoen (diru-laguntzak, aholkularitza zerbitzuak...) osagarri izan daitezkeenak.

#### 4. TOKIKO GARAPEN ESTRATEGIEN SAILKAPENA. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

##### 4.1. TOKIKO GARAPEN POLITIKEN BILAKAERA. TOP-DOWN, BOTTOM-UP, SPATIALLY BLIND ETA PLACE-BASED IKUSPEGIAK.

##### 4.2. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

- Top-down orientazioko politikak bi ardatzetan egituratzen dira:
  - garapen ekonomikorako azpiegiturak lortzea;
  - atzerriko inbertsio zuzena zein industria erakartzea.
- Estrategia tradizional hauen porrota. Arrazoiak (Rodriguez-Pose, 2002; Mytelka, 2000):
  - Faktore garrantzitsuak gutxietsiak: tokiko enpresak laguntzea, tokiko giza-baliabideen hobekuntza edota teknologiaren difusio eta asimilazioa...
  - Irisgarritasun-hobekuntzaren kontrako efektuak.
  - Kanpoko enpresa handien kokatzeak, (Perroux-en poloak) ingurunea dinamizatu eta efektu biderkatzaileak sortu ordez, desartikulazioa eta kanpo-menpekotasuna ekarri du.
  - Estatuetakoko plangintza eta garapenerako bulegoetatik politikak aldaketarik gabe ezarriak izan dira ingurune erregional edo lokal ezberdinetan.

#### 4. TOKIKO GARAPEN ESTRATEGIEN SAILKAPENA. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

4.1. TOKIKO GARAPEN POLITIKEN BILAKAERA. TOP-DOWN, BOTTOM-UP, SPATIALLY BLIND ETA PLACE-BASED IKUSPEGIAK.

4.2. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

- Garapen lokal eta erregionalaren birplanteamendu osoa: Bottom-up norabideko estrategiak.
- Ezaugarriak(White eta Gasser, 2001):
  - parte-hartze eta elkarrizketa soziala behar dute;
  - lurraldean oinarrituta daude;
  - tokiko baliabide eta lehiarako abantailen mobilizazioa eragiten dute;
  - lokalki sortuak eta zuzenduak dira.

#### 4. TOKIKO GARAPEN ESTRATEGIEN SAILKAPENA. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

##### 4.1. TOKIKO GARAPEN POLITIKEN BILAKAERA. TOP-DOWN, BOTTOM-UP, SPATIALLY BLIND ETA PLACE-BASED IKUSPEGIAK.

##### 4.2. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

	TOP-DOWN	BOTTOM-UP
NON?	Egitura zentralek erabakitzen dute ze eskualdetan eragin	Tokiko eragileek erabakitzen dute garapen estrategia abian jarri edo ez.
POLITIKEN DISEINUAN NOR?	Maila goragoko egiturek.	Tokiko eragileek. Sinkronizazioaren beharra. Maila anitzeko gobernantza.
ZERTAN ZENTRATUA?	Sektore ekonomiko batzuen sustapena.	Lurraldearen diagnostikoan oinarrituta sektorialki anitzagoa.
ZE MOTAKO EGITASMOA?	Egitasmo handiak, balio-kateak ernarazteko asmoz.	Enpresa txiki eta ertainak. Egokitze progresiboa.
ZE MOTAKO TRESNAK?	Finantza-babesa, pizgarriak eta diru-laguntzak lehenetsi.	Eskaintzaren aldeko oinarrizko baldintzen hobekuntzan kontzentratu.

#### 4. TOKIKO GARAPEN ESTRATEGIEN SAILKAPENA. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

##### 4.1. TOKIKO GARAPEN POLITIKEN BILAKAERA. TOP-DOWN, BOTTOM-UP, SPATIALLY BLIND ETA PLACE-BASED IKUSPEGIAK.

##### 4.2. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

- Bottom-up norabidearen abantailak:

Sozialak

- Tokiko gizarteei boterea eta ardura ematen diete;
- Tokiko elkarrizketa suspertzen dute;
- Norbanakoek autonomia maila handiagoa, jarrera pro-aktiboagoa lortzen dute;
- Garapen iraunkorrekiko eta gertuko ezaugarri ekonomiko, sozial eta politikoekiko kontzientzia argiagoa eskuratu ohi dute
- Instituzio lokal eta erregionalak irekiago, gardenago eta arduratsuagoak izaten laguntzen dute.

Ekonomikoak

- Hazkunde ekonomiko iraunkorragoa eta inguruneko aldaketak jasateko gauzago diren enpresetan enplegua sortzen dute.
- Enpleguen kalitatearen hobekuntza orokorrari laguntzen diote.
- Jarrera aktiboagoa eta arrisku handiagoak gainean hartzera laguntzen du. Ekintzailetasuna suspertzen du.

#### 4. TOKIKO GARAPEN ESTRATEGIEN SAILKAPENA. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

4.1. TOKIKO GARAPEN POLITIKEN BILAKAERA. TOP-DOWN, BOTTOM-UP, SPATIALLY BLIND ETA PLACE-BASED IKUSPEGIAK.

4.2. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

- **Bottom-up** estrategien desabantailak edo arriskuak:
  - Denboraren aldetik kostu handikoa izan daiteke;
  - Tokiko koalizioak, interes taldeen koordinazio lanak eta eragileen inplikazio orokorrak antolaketa ahalegin handia eskatzen dute;
  - Denbora zein baliabide esanguratsuak kontsumitzen ditu baita garapen prozesua hasi aurretik ere.
  - Arrakasta ez dago bermatuta, ez epe motzean ez luzean, beti ez delako gai izaten garapen estrategia egokiena zehazteko, diseinatzeko edota gauzatzeko.
  - Tokiko eragileen inplikazioa ez da bermea estrategia egoki eta teknikoki eraginkorrak hautatzeko.
  - Zenbaitetan epe motzeko politika arras ikusgarriak lehenesteko joera egon daiteke, epe luzerako estrategia orekatuagoen ordez.

#### 4. TOKIKO GARAPEN ESTRATEGIEN SAILKAPENA. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

##### 4.1. TOKIKO GARAPEN POLITIKEN BILAKAERA. TOP-DOWN, BOTTOM-UP, SPATIALLY BLIND ETA PLACE-BASED IKUSPEGIAK.

##### 4.2. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

- Nazioarteko erakundeetan tokiko garapenarekiko ardura handiagotuz:

Place-neutral  
policies

- Munduko Bankua (2009): *Reshaping Economic Geography*.
- Europear Batasuna (2004): *An Agenda for a Growing Europe (The Sapir report)*.

Place-based  
policies

- Europear Batasuna (2010): *An Agenda for A Reformed Cohesion Policy: A Place-Based Approach to Meeting European Union Challenges and Expectations (The Barca report)*.
- OECD (2009): *How regions Grow*.
- OECD (2009): *Regions matter*.
- Corporación Andina de Fomento (2010): *Desarrollo local: hacia un nuevo protagonismo de las ciudades y regiones*.



#### 4. TOKIKO GARAPEN ESTRATEGIEN SAILKAPENA. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

##### 4.1. TOKIKO GARAPEN POLITIKEN BILAKAERA. TOP-DOWN, BOTTOM-UP, SPATIALLY BLIND ETA PLACE-BASED IKUSPEGIAK.

##### 4.2. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

- Garapen endogenoa: “hazkunde ekonomiko eta egiturazko aldaketako prozesua da, garapen potentziala erabiliz komunitateak gidatutakoa eta tokiko populazioaren bizitza maila hobetzera bideratua” Antonio Vázquez Barquero (1999) .



#### 4. TOKIKO GARAPEN ESTRATEGIEN SAILKAPENA. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

##### 4.1. TOKIKO GARAPEN POLITIKEN BILAKAERA. TOP-DOWN, BOTTOM-UP, SPATIALLY BLIND ETA PLACE-BASED IKUSPEGIAK.

##### 4.2. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

- Tokiko garapenerako estrategia eraginkor eta adimentsuak ezaugarritze endogeno eta sistemikoetan oinarritzen dira.
- Toki eta eskualde garapenerako politiken ikuspegi sistemikoak lau bektore edo mailatan eragiten dio tokiko gizartearen interakzioari
  - Makro maila
  - Mikro maila
  - Meso maila
  - Meta maila

# Lehiakortasun sistemikoaren faktore erabakigarriak



Iturria: Alburquerque (2011)

#### 4. TOKIKO GARAPEN ESTRATEGIEN SAILKAPENA. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

##### 4.1. TOKIKO GARAPEN POLITIKEN BILAKAERA. TOP-DOWN, BOTTOM-UP, SPATIALLY BLIND ETA PLACE-BASED IKUSPEGIAK.

##### 4.2. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

- Garapen endogenoak garapen-indar guztiengan era konbinatuan eragitea bilatzen du, beraien artean efektu sinergikoak sortu eta hobetzeko eta lurralde bateko garapen iraunkorra suspertzeko.
- Horretarako, tokiko baliabideak (ez bakarrik) erabiltzen ditu bertako aktoreek diseinatutako, kudeatutako eta kontrolatutako egitasmoetan.
- Paradigmaren iturriak:
  - Industri-distritoen inguruko azterketak (Becattini, Camagni, Saxenian, Garofolli,...)
  - Cluster-ei buruzko literatura (Porter...)
  - Eskola instituzionalista eta berrikuntzaren inguruan atal eboluzionista (North, Ostrom, Nelson, Ludvall, Edquist, Moulaert...)
  - Berrikuntza sistema erregionalen inguruko literatura (Cooke, Etxebarria, Gomez-Uranga, Asheim, Gertler...)

#### 4. TOKIKO GARAPEN ESTRATEGIEN SAILKAPENA. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

##### 4.1. TOKIKO GARAPEN POLITIKEN BILAKAERA. TOP-DOWN, BOTTOM-UP, SPATIALLY BLIND ETA PLACE-BASED IKUSPEGIAK.

##### 4.2. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

- Bi ideei nagusi partekatzen dituzte:
  - Gertutasun fisikoak garrantzia du.
  - Lurraldeko instituzioek, eragileen jokabidea definitzen eta mugatzen duten joko-arau gisa ulertuta, eta lurraldearen historiak garapen estrategiak baldintzatzen dituzte.
- Autore batzuk:
  - Alburquerque, Paco
  - Arocena, José
  - Boisier, Sergio
  - Madoery, Oscar
  - Vazquez-Barquero, Antonio

#### 4. TOKIKO GARAPEN ESTRATEGIEN SAILKAPENA. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

##### 4.1. TOKIKO GARAPEN POLITIKEN BILAKAERA. TOP-DOWN, BOTTOM-UP, SPATIALLY BLIND ETA PLACE-BASED IKUSPEGIAK.

##### 4.2. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

- Garapen-indarrak:
  - Komunitatearen parte-hartzea eta inplikazioa (5-C).
  - Harreman-dentsitatea.
  - Lurralde-identitatea.
  - Ekintzailetasun ahalmena eta sormena.
  - Ezagutza eta berrikuntza.
  - Instituzioen kalitatea. Gizarte-kapitala.
- Endogeneitate dimentsioak:
  - Herriak zein eskualdeak bere garapen estrategia propioa erabaki eta gauzatzeko ahalmena.
  - Sare produktiboaren berrikuntza teknologikoa suspertu eta bultzatzeko ahalmena.
  - Lurraldearen ahalmena aurrezteko eta mozkinak tokian berrinbertitzeko.
  - Lurralde-identitate kultura sendotzeko ahalmena, aktibo ukiezinak ( konfiantza, elkarrekotasuna, lidergoa, elkarlana, konpromisoa) kitzikatuz tokiko ekonomi eta enpresen lehiakortasuna indartzeko balio duena.

#### 4. TOKIKO GARAPEN ESTRATEGIEN SAILKAPENA. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

##### 4.1. TOKIKO GARAPEN POLITIKEN BILAKAERA. TOP-DOWN, BOTTOM-UP, SPATIALLY BLIND ETA PLACE-BASED IKUSPEGIAK.


##### 4.2. GARAPEN ENDOGENOAREN PARADIGMA.

- Garapen endogenoaren ezaugarriak:
  - i. Epe luzerako begirada; eta ekonomi, gizarte eta ingurumen-helburuak harmonizatu.
  - ii. Lurraldeko potentzialtasun eta faktore zein indar endogenoen mobilizazioa eta aktibazioa.
  - iii. Barneko eta kanpoko baliabideen konbinaketa, lurraldeko kontrol esanguratsuaren pean.
  - iv. Ikuspegi multisektoriala.
  - v. Arreta handiagoa mikroenpresa eta enpresa txikiei.
  - vi. Ekintzailetasuna sustatu (mota guztietakoa)
  - vii. Berrikuntza zentroan.
  - viii. Dinamika sozial eta politikoak eta baldintza instituzional eta kulturalak elementu garrantzitsuak dira.

## 5. “TOKIKO GARAPEN ENDOGENORAKO SISTEMA IREKIA” PROPOSAMEN KONTZEPTUALA.


- Eskualde askotan gertatu da garapen endogenoko esperientzia baten eraikuntza. Tokiko eragile, pertsona eta gizarteak protagonismoa hartu dute bere etorkizuna definitzeko, langabezi altuari irtenbidea ematen saiatzeko...
- Garapen esperientzia konkretuetan hainbat tresna eta arkitektura eraginkor bat sortu behar dira han parte hartzen duten eragileak inplikatzeko eta bide batzuen inguruan lerrokatzeko.
- Eskualdeko plan bat garatzea prozesu malgua eta irekia da, bideratzea xede duena, izan ere, parte hartzen duten eragileen konpromisoak (egungoak eta etorkizunekoak) erabat boluntarioa dira, proiektu zehatzetan gauzatzeko modukoa.
- Beraz, helburua izaera sistemikoa izango duen antolakuntzarako arkitektura bat eraikitzea da.

# 4. TOKIKO GARAPEN-SISTEMA IREKIAK







# 4. TOKIKO GARAPEN-SISTEMA IREKIAK




# 4. TOKIKO GARAPEN-SISTEMA IREKIAK



# 4. TOKIKO GARAPEN-SISTEMA IREKIAK



# 4. TOKIKO GARAPEN-SISTEMA IREKIAK



6. ONDORIO GISA: NONDIK HASI? SORRERARAKO METODOLOGIA ETA OHIKO AKATSAK.

6.1. TOKIKO GARAPEN SISTEMA IREKIAREN GENESIRAKO METODOLOGIA.

6.2. TOKIKO GARAPEN ESPERIENTZIEN GENESIAN EMAN OHI DIREN IKUSPEGI OKERRAK.

- Tokiko eskalan garapen endogenoko esperientziaren zutabeak eraikitzeko metodologia lau fasetan ordenatzen dugu:
  - lehen fasean, egoera zehatz bati erantzun soziala edo instituzionala eman;
  - bigarren fasean, bide-orria definitu;
  - hirugarren fasean, tresnak eta arkitektura eraiki;
  - laugarren fasean, garapenerako ekimen zehatzak gauzatu.

## 6. ONDORIO GISA: NONDIK HASI? SORRERARAKO METODOLOGIA ETA OHIKO AKATSAK.

### 6.1. TOKIKO GARAPEN SISTEMA IREKIAREN GENESIRAKO METODOLOGIA.

### 6.2. TOKIKO GARAPEN ESPERIENTZIEN GENESIAN EMAN OHI DIREN IKUSPEGI OKERRAK.


Tokiko garapen esperientzien genesian eman ohi diren ikuspegi okerrak:

- Garapen esperientziaren grabitate-zentroari dagozkion ikuspegi okerrak. Eskala anitzeko gobernantza horretan grabitate zentroa lurralde konkretuan egon behar du, eta bertako eragileen esku.
- Garapen strategiaren diseinuari loturiko ikuspegi okerrak. Lehen fase batean ez da hain garrantzitsua zer egin ñabardura guztiakin zehaztea, nork eta nola egingo duen zehaztea baino
- Ikuspegi ideologikoari loturiko ikuspegi okerrak. Bi mutur: a) azpiegiturekiko miresmena eta merkatuen eta enpresen funtzionamenduari buruzko jarrera liberala; b) ikuspegi populistak edota postdesarrollistak.

6. ONDORIO GISA: NONDIK HASI? SORRERARAKO METODOLOGIA ETA OHIKO AKATSAK.

6.1. TOKIKO GARAPEN SISTEMA IREKIAREN GENESIRAKO METODOLOGIA.

6.2. TOKIKO GARAPEN ESPERIENTZIEN GENESIAN EMAN OHI DIREN IKUSPEGI OKERRAK.





- **ESKERRIK ASKO**